

ME
MO
RIA



BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA

2020



Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez (Aiete Jauregia) lan egiten du bake kultura hedatzeko, giza eskubideak sustatzeko eta oroimen historikoa berreskuratzeko. Betiere beste udal atal, erakunde, elkarte eta hainbat herritarrekin batera.

BIKTIMEN AITORPENA

IN MEMORIAN	5
PLAKA, GREGORIO ORDÓÑEZEN OMENEZ	6
PLAKA, BEGOÑA URROZEN OMENEZ	7
PLAKA, FRANCISCO MARTÍN GONZÁLEZEN OMENEZ	8
ERAKUSKETA: GREGORIO ORDÓÑEZ, BIZITZA POSIBLEA	9
ERNEST LLUCH, LIBRE Y ATREVIDO DOKUMENTALAREN ESTREINALDIA	10
OROIMENAREN EGUNA	11
MIKEL ZABALZARI OMENALDIA	12

ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEAK

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN ONLINE KANALA	14
HEMEN EMAKUMEEN ELKARTEAREN FILM LABURREN ONLINE EMANALDIA	15
ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEEN ERAKUSTALDIA	16

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 16. EKITALDIA

18

DONOSTIAKO BIZIKIDETZAREN ALDEKO HERRITAR FOROA

20

NAZIOARTEKO EGUNAK

LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA	22
NBEREN 75. URTEURRENA	23
BIZIAREN ALDEKO HIRIAK / HERIOTZA ZIGORRAREN AURKAKO HIRIAK	24
GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA	25
HIESAREN AURKAKO MUNDU MAILAKO EGUNA	26

OROIMEN HISTORIKOA

DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN EGUNA	28
DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN IBILBIDEA	29

ESKURA

PEDAGOGIA-BALIABIDEEN NAZIOARTEKO II. MINTEGIA	31
ESKURA. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO PEDAGOGIA BALIABIDEEN II. AZOKA	32

ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

33

GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO IKASTAROAK

34

BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA



BIKTIMEN AITORPENA



Giza Eskubideak. Donostiako Udala

BIKTIMEN AITORPENA

IN MEMORIAN

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, konpromiso sendoa mantentzen du terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen memoria, egia jakiteko eskubidea, justizia, erreparazio morala eta duintasuna babesteko.

Udalak biktimen errekonozimendu eta oroimenezko ekimenak egin ditu. Besteak beste, plakak jartzen jarraitu du: 1960 eta 2020 urte bitartean ETAk, Batallón Vasco Españolak eta GALEk eraildako donostiarren nahiz hirian bertan hil zituzten pertsonen oroimenez; baita poliziaren biolentzia jasan dutenen oroimenez ere. Biktima horiek guztiak Eusko Jaurlaritzaren honako dokumentu honetan bildu dira: "Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri".

BIKTIMEN AITORPENA

Urtarrilaren 25ean


PLAKA, GREGORIO ORDÓÑEZEN OMENEZ

Donostiako Udalak plaka bat jarri zuen Gregorio Ordoñezen omenez duela 25 urte hil zuten tokian. Eneko Goia Donostiako alkateak eta udalbatzako kideek, Ordoñezen familiarekin batera, omenaldia egin zioten hiriko alkateorde zenari, lore eskaintza batekin.



Eneko Goia alkatea buru zela, Gregorio Ordoñezen alarguna eta erakundeetako ordezkariak izan ziren ekitaldian.

Gregorio Ordoñezen hilketak 1995eko urtarrilaren 23ko eguerdian izan zen, Donostiako Parte Zaharrean. Ordoñez, 36 urtekoa, ETAko komando batek hil zuen inguruko jatetxe batean bazkaltzen ari zela.



BIKTIMEN AITORPENA

Urriaren 10ean

PLAKA, BEGOÑA URROZEN OMENEZ

Donostiako Udalak Begoña Urroz Ibarrolaren omenez plaka jarri zuen Amarako geltokiaren aurrean. Gogoan izan, Begoña Urroz Ibarrola duela 60 urte hil zela Amarako geltokian izandako atentatu batean. Plaka jartzeko ekimen hau aurreko legealdian jarri zen martxan Donostian, bortizkeria jasan zuten pertsonen gune publikoan ikusgarritasuna emateko helburuz.

Ekitaldian, Begoña Urrozen senitartekoak izan ziren, baita Eneko Goia alkatea eta talde politiko ezberdinen ordezkariak ere.

Begoña Urroz Amarako tren geltokiaren kanpoaldean jarritako bonba baten ondorioz hil zen, 1960. urteko ekainaren 27an, 22 hilabete zituela. Eztandak eragin zizkion erredura larrien ondorioz, atentatuaren hurrengo egunean zendu zen. Urte askotan atentatua ETak egin zuela uste izan zen, baina hainbat historialarien ikerketak ondorioztatu zuen atentatua Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación (DRIL) izeneko taldeak egin zuela.



Ekitaldia, Eusko Tren geltokiaren ondoan



Begoña Urrozen omenezko plaka



Begoña Urrozek, atentatuaren biktimaren ahizpak, plakaren erreplika bat jaso zuen

BIKTIMEN AITORPENA

Azaroaren 7an

PLAKA, FRANCISCO MARTÍN GONZÁLEZEN OMENEZ



Donostiako Udalak Francisco Martín González-en omenez plaka jarri zuen. ETak hil zuen atentatu batean 1978. urtean. Hirian Udalak jartzen duen zortzigarren plaka da, bortizkeria jasan zuten pertsonei gune publikoan ikusgarritasuna emateko ekimenaren barruan.

Plaka jartzeko ekitaldia Bidebietako Zumardi pasealekuan izan zen, eta Donostiako alkate Eneko Goiak nahiz udal taldeetako ordezkariak parte hartu zuten.

Francisco Martin Gonzalez su armaz egindako atentatu baten ondorioz hil zen, 1978ko ekainaren 27an, 41 urte zituela. Patruilatzen ari zen Polizia Armatuaren ibilgailua tirokatua izan zen Zumardi pasealekuaren sarreran. Berarekin batera zeuden hiru polizia zaurituak izan ziren.



Lore eskaintza, Francisco Martín González-en omenez



BIKTIMEN AITORPENA

Urtarrilaren 23tik martxora arte

ERAKUSKETA: *GREGORIO ORDÓÑEZ, BIZITZA POSIBLEA*

Erakusketak ezagutzera ematen ditu ETak 1995ean erail zuen Donostiako Udaleko alkateorde eta euskal politikariaren bizitza eta ibilbide politikoa.

Ia 300 piezek gogoratzen dute bere historia eta politika egiteko zuen modu berezia. Gregorio Ordoñezen eta ETaren gainerako biktimen oroimenari omenaldia da.

Erakusketa urtarrilaren 23an inauguratu zuten, bere hilketaren 25. urteurrenean, Miramar Jauregian.

Donostiako Udalak lagundu du erakusketa honetan. Donostiako alkate Eneko Goiak ikasleei bisita gidatua egin zien.



Iñigo Urkullu lehendakariak, Eneko Goia Donostiako alkateak eta Gipuzkoako diputatu nagusiak, besteak beste, parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian

BIKTIMEN AITORPENA

Ekainaren 23an

ERNEST LLUCH, LIBRE Y ATREVIDO DOKUMENTALAREN ESTREINALDIA

Ernest Lluch, libre y atrevido ETAK 2000an eraildako politikari sozialista katalanaren inguruko dokumentala estreinatu zuten Antzoki Zaharrean.

Eneko Goia Donostiako alkatea filmaren proiektzioan izan zen, udalbatzako kideekin, foru diputatuekin, Eusko Jaurlaritzako sailburuekin eta Legebiltzarreko ordezkariekin, Donostiari estuki lotutako politikaria hil zuteneko 20. urteurrenean.

Josep Morellek eta Jordi Vilarrek ekoitzitako filmak bidaia politikoa eta biografikoa egiten du Llunchen bizitza markatu zuten bost hirietan zehar: Donostia, Bartzelona, Valentzia, Madril eta Santander. Dokumentalean biltzen dira ezagutu zuten pertsonei egindako elkarrizketak.



Eneko Goia alkatea, Juan Ramón Viles zinegotziarekin batera



BIKTIMEN AITORPENA




Udal talde guztietako ordezkariak parte hartu zuten Memoriaren Eguneko lore eskaintzan

Azaroaren 10ean

OROIMENAREN EGUNA

Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei. Ekitaldia Alderdi Ederren dagoen biktimak omentzeko monolitoan izan izen. Bertan, udal korporazioaren talde politiko guztiek hartu zuten parte. Minutu batzuk isilean igaro ondoren, lore eskaintza egin zuten, Udalaren Txistulari Taldeak lagunduta.



BIKTIMEN AITORPENA

Abenduaren 19an

MIKEL ZABALZARI OMENALDIA

Donostiako Udalak omenaldia egin zion Mikel Zabalza udal langileari, Udalbatza Aretoan, bere heriotzaren 35. urteurrenean.

Omenaldian udal taldeen ordezkariak eta Zabalzaren familiartekoak izan ziren. Bertan, lore eskaintza egin zen eta Eneko Goia alkatearen zein familiaren adierazpenak izan ziren.

Goiak azpimarratu zuenez, *"Indarkeriaren biktima izan diren guztientzat beti eskatzen dugun memoria, erreparazioa eta justizia, kasu honetan, Zabalza auzia behin betiko argitzeko zehaztu*

behar dira. Ezinbesteko urratsa da senitartekoek eta gertukoek zauriak itxi ahal izateko, izan ere, gaur, 35 urte beranduago, zauriak zabalik daude".

Mikel Zabalza Garate Orbaitzetan (Nafarroa) jaio zen. Donostiako Tranbia Konpainiako autobus gidaria zen, eta ELA sindikatuko kidea. Guardia Zibilak 1985ean atxilotu zuen, eta Intxaurrondoko kuarteletik igaro ondoren, egun batzuk geroago Bidasoa ibaian hilda aurkitu zuten. Heriotza hori ez da judizialki argitu.



BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA



ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEAK


Apirilaren 23tik 30era

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN ONLINE KANALA

Apirilaren 23tik 30era egitekoa zen Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia bertan behera geratu zen COVID 19aren pandemiagatik.

Jaialdia antolatzen duten Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak ezin izan zutenez aurrez aurreko zinema saiorik eskaini, herritarrei kanal bat eskaini zieten **Filmin** online plataforman.

Bertan eskuratu ahal izan ziren aurreko edizioetan emandako hainbat film, Zinemaldiak bere ibilbideagatik saritutako zinemagileek zuzendutako pelikulak, gizarte gaiak dituzten emakumezko errealizadoreen zinema lanak, eta euskal ekoizpenei buruzko atal bat. Atal horretan, *Hilos de sororidad* dokumentala estreinatu zen Filminen.



Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra

(H)emen EMAKUMEEN ELKARTEAREN FILM LABURREN ONLINE EMANALDIA

Giza eskubideen inguruko zazpi film labur eta solasaldi bat eskaini zituzten (H)emen-ek —ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoaren sektoreko emakumeen elkartea— eta **Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak**. Erakustaldia #DKetxean ekimenaren baitan burutu zen, eta COVID 19aren pandemiak behartutako konfinamenduan zehar antolatu zen.

Solasaldian film laburrak zuzendu edo ekoiztu dituzten emakumeek parte hartu zuten: Amaia San Sebastián, María Aizpuru, Emily Lobsenz, Ainhoa Urgoitia, Nagore Eceiza eta Esti Urresola. Moderatzaile lanak (H)emen-eko batzarkide Tessa Andonegi aktoreak egin zituen.






Filmeen zuzendariak zikloko hiru filmak aurkeztu zituzten

Ekainaren 22tik 24ra


ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEEN ERAKUSTALDIA

Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldia antolatu zuten Donostiako Giza Eskubideen Bulegoak eta Donostia Kulturak, Antzoki Zaharrean.

Giza Eskubideen 18. Zinemaldian programatutako hiru dokumental estreinatu ziren, apirilean eman ez zirenak, larrialdi sanitarioaren ondorioz: *Apaga la luz y verás* (2020), dokumental autobiografikoa, ikusmen urriko Ibon Casas musikari eta musikagileari buruzkoa; *Ernest Lluch, libre y atrevido* (2020), ETAk eraildako politikari sozialistaren inguruko filma; *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* (2020), Euskal Herriko kontzientzia eragozpenaren eta antimilitarismoaren mugimenduari buruzko dokumentala.



BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA



ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN EKITALDIA

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN EKITALDIA

2020eko urritik 2021eko otsailera

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 16. EKITALDIA



Foiletoa



Lehiaketan sarituak

Ikastetxeetako, haurtxokoetako, gaztelekuetako, arte akademietako eta bere kabuz animatutako 2.000 haur eta gaztek baino gehiagok parte hartu zuten Donostiako Udalak antolatutako lehiaketan.

Ekitaldiaren helburua da ikasleek giza eskubideen hainbat alderdiri buruz hausnartzea eta aurtengoa oinarritu zen pertsona orok estatu baten lurraldean askatasunez zirkulatzeko eta bizilekua aukeratzeko duen eskubidean (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikulua).

Aurtengo edizioan ezinezkoa izan da lanak Victoria Eugenia Antzokian erakustea eta sariak aurrez aurre banatzea Udaleko Osoko Bilkuren Aretoan, COVID 19aren pandemia dela eta.

BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA

DONOSTIAKO HERRITAR FOROA



DONOSTIAKO BIZIKIDETZAREN ALDEKO HERRITAR FOROA

DONOSTIAKO BIZIKIDETZAREN ALDEKO HERRITAR FOROA

Abenduaren 9an

DONOSTIAKO BIZIKIDETZAREN ALDEKO HERRITAR FOROA



Donostiako Bizikidetzaren aldeko Herritar Foroaren kideak

Donostiako Bizikidetzaren aldeko Herritar Foroa bilgune bat izan da, ibilbide pertsonal, sozial eta ideologiko desberdinak dituzten pertsonen osatua, eta, 2015az geroztik, elkarrizketa prozesu zintzoa eta errespetuzkoa garatu dute. Haien bizipenetatik abiatuta, aniztasunean, kultura demokratikoan eta memoria inklusibo eta ez justifikatzailean bizikidetzera eraikitzeke ekarpena nola egin bilatu du Foroak.

Aurkezpen ekitaldian, udal talde guztietako ordezkariak Foroaren aldeko testua irakurri zuten, 2020ko abenduaren 9an, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren bezperan, Donostiako Antzoki Zaharrean.

Ia bost urtez, Foroa osatu duten pertsonen hausnarketa kritikoa egin dute gure iraganari eta orainari buruz, etorkizunari aurre egiteko. Prozesu bizi eta emankorrean ezagutu, ulertu eta aitortu dute elkar. Prozesua honako dokumentu hauetan jaso da:

- Bidea eraikitzen, Donostiako Hiritar Foroa, dokumentala
- Foroaren ibilbidea
- Barne narratiba
- Ondorioak

BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA



NAZIOARTEKO EGUNAK

NAZIOARTEKO EGUNAK



Udaleko ordezkariak Adierazpen Instituzional bat irakurri zuten




Ekainaren 28an

LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

LGTBI harrotasunaren Nazioarteko Eguna zela eta, Udalak adierazpen instituzional bat onartu zuen, Eusko Jaurlaritzari eskatuz LGBTI Lege Integral bat egiteko eta LGBTI Euskal Kontseilua sortzeko.

Adierazpen Instituzionala Udaleko terrazan irakurri zuten Eneko Goia alkateak eta udal talde guztietako bozeramaileek: EAJ, EH Bildu, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia.

Gainera, LGBTBI kolektiboaren ikurra den ostadarra duen alfonbra erraldoi bat jarri zuten udaletxeko kanpoko eskaileretan. LGBTBI banderarekin argiztatu zen Kursala eta Dbuseko autobusek kartelak eraman zituzten.



Urriaren 24an

NBEREN 75. URTEURRENA



NBERen 75. urteurrena zela eta, Donostiako Udaleko fatxada urdinez argiztatu zuten. Horrela, gogora ekarri nahi izan zen 75 urte hauetan herrien arteko elkarriketa funtsezkoa izan dela aurrera egiteko, besteak beste: giza eskubideetan, hezkuntza unibertsalean, pobreziaaren aurkako borrokan eta genero berdintasunean.

Testuinguru horretan, Udalak konpromiso berria erakutsi zuen pertsona guztien eta gure planetaren ongizatearekin, Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren 2030 Agendarekin eta nazioen arteko lankidetzaren eta elkartasunarekin.

Azaroaren 30ean

BIZIAREN ALDEKO HIRIAK

HERIOTZA ZIGORRAREN AURKAKO HIRIAK

Donostiako hiriak bat egin zuen *Biziaren aldeko hiriak/ Heriotza zigorraren aurkako hiriak* nazioarteko ekimenarekin, zeina Sant'Egidio Komunitateak bultzatzen duen, urtero, azaroaren 30ean.

Heriotza zigorraren ezeztapena aldarrikatzeko kolore gorriz argiztatu zen Donostiako udaletxearen aurrealdea. Iaz, 657 pertsona exekutatu zituzten 20 herrialdetan, Amnistia Internazionalak aditzera emandako datuen arabera.

2016an, Donostiako Udalak erakunde adierazpen bat onartu zuen, honela, konpromisoa hartu zuen bere eskumeneko arlo guztietan informazio eta sentsibilizazio espazio egokiak sortzeko heriotza zigorra gaitzesteko.



Abenduaren 10ean

GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Donostiako Udalak kontzertu solidario bat eskaini zuen Antzoki Zaharrean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Jasotako dirua, Mirzo Music Fundaziora bideratu zen, emakume kurdu yazidiei laguntzeko; gaur egun, Kurdistango Duhok errefuxiatuen eremuan dauden emakumeentzat, hain zuzen ere.

Ekitaldiak Kurdistango musiken aldeko elkartasun bidaiaz gozatzeko aukera eskaini zuen, estilo oso pertsonalarekin, Ekialdeko eta Mendebaldeko soinuak batzea lortu duten musikariek:

- Ibrahim Keivo. Oso musikari ezaguna eta saritua da eskualde kurdu-arabiarrean eta baita Europan ere. Haren kantuak eta musikek intentsitate handiz adierazten dituzte Jezirehko musikak.
- Gani Mirzo Band. Ekialdeko musikan aditua da, eta laut jotzaile bikaina. Oso ezaguna Kurdistango erritmoak flamenkoarekin eta jazzarekin bateratzeagatik.

Donostiako Lankidetzak eta Giza Eskubideen Sailak antolatu zuten kontzertua, Donostia Kulturaren lankidetzarekin.

Abenduaren 1ean

HIESAREN AURKAKO MUNDU MAILAKO EGUNA

Donostiako Udalak hainbat ekintza antolatu zituen Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkarteekin batera, HIESaren aurkako Mundu Mailako Egunaren harira.

Begizta gorriak dituzten kartelak jarri ziren Udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan eta hainbat garraio publikotan, besteak beste, **Dbus-en**. Egun horretan, gainera, udaletxea gorritz argiztatu zen.



BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA




OROIMEN HISTORIKOA

Irailaren 13an

DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN EGUNA

Donostiako alkate Eneko Goiak eta Udalbatzak frankismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko lore eskaintza egin zuten Dual eskulturan, Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna zela eta. Honela, omenaldia egin nahi izan zieten 1936ko estatu kolpe frankistaren ondoren eta diktadura garaian askatasun demokratikoak babestu zituztenei.

Donostiako alkateak azpimarratu zuenez “ekitaldi honekin lortu nahi duguna da ez ahaztea hiriak urte luzez jasan zuen sufrimendua, askatasunak amaitu eta iluntasun garai batean sartu baikinena”. “Gure herritar asko ihes egiteaz gain, beste batzuek bizia ere galdu zuten, eta ekitaldi xume honen bidez ondorioak jasan zituzten pertsona horiek guztiak oroitu nahi ditugu” gorarazi zuen Goiak.



OROIMEN HISTORIKOA

Martxoaren 2020an

DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN IBILBIDEA

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen atalak antolatu zituen, beste urte batez, Donostiako oroimen historikoaren ibilbide gidatuak, Batxilergo eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Gerra Zibilean, 1936ko estatu kolpearen eta diktadura frankistaren ondoren gertatutakoa ezagutzera emateko.

Martxoaren hasieran abian jarri ziren. Baina, COVID-19 pandemiaren eraginez, bertan behera utzi behar izan ziren. Urtero 1.000 ikasle baino gehiagoak parte hartzen dute ibilbidetan.

Hauek dira ibilaldian zehar bisitatu ziren 1936ko estatu kolpeko eta frankismoaren garaiko Donostiako gertaera nagusien gunek:



- 1. ABIATZEA**
Easo plazako kioskoa
- 2. BABESLEKUA**
Garai bateko suhiltzaileen eraikina
- 3. ATXIKITZE LEKUA**
San Jose ikastetxea
- 4. BONBARDAKETA LEKUA**
San Martzial kalea 48-50
- 5. KOMUNIKABIDEAK ETA ZENTSURA**
Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzea
- 6. BORROKA LEKUA**
Maria Cristina hotela
- 7. FUSILAMENDU LEKUA**
Nautikoaren pasabidea
- 8. DUAL ESKULTURA**

BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA



ESKURA

Otsailaren 19 eta 20an

PEDAGOGIA-BALIABIDEEN NAZIOARTEKO II. MINTEGIA

Aniztasuna eta bizikidetza gaiari buruzkoa izan zen Pedagogia-Baliabideen Nazioarteko II. Mintegia. Eskurak antolatzen du eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean (Aiete Jauregia) burutu zen, zentroaren egoitzan.

Paloma Viejo Otero Dublin City Universityko gorrotoaren diskurtsoaren ikertzaileak ireki zituen jardunaldiak, *Nola aurre egin gorrotoaren diskurtsoari* hitzaldiarekin. Bigarren egunean, Jurjo Torres Santomé pedagogoa eta A Coruña Unibertsitateko irakaslea aritu zen *Bizikidetzarako hezkuntzari* buruz.

Aniztasunean oinarritutako bizikidetza sustatzeko helburuz sortutako tokiko eta nazioarteko baliabideek osatu zuten mintegiko gainerako programa, aniztasun hori hainbat ikuspegitatik ulertuta. Besteak beste, Gehitu, Fundesplai, Anti Bias Netz eta Centre for Studies on Inclusive Education erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten.

Jardunaldiak araututako eta arautu gabeko hezkuntzako profesionalentzat dira, bai eta GGKEetako kideentzat, giza eskubideen arloko ekintzaileentzat, irakasle eskoletako eta pedagogiako ikasleentzat ere eta, oro har, herritar guztientzat.



ESKURA

Urriaren 19tik 21era

ESKURA.GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO PEDAGOGIA BALIABIDEEN II. AZOKA

Azokaren bigarren edizioak etxerik gabeko pertsonen, migratzaileen, errefuxiatuen eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak zituen ardatz, *Ikusezin bihurtutako pertsonak, baliabide lausotuak* izenburupean.

Etxerik gabeko pertsonen dagokienez, Cáritas Bizkaia, Bizitegi eta Arrats elkarteetako ordezkariak parte hartu zuten. Hiru baliabide interesgarri aurkeztu zituzten: Bizitegi, *Homeless Festival*; Arrats, *Ikusezinak Irratia*; Cáritas Gipuzkoa, *Aparkatu zure indiferentzia* erakusketa.



Errefuxiatuei dagokienez honakoak aurkeztu ziren: CEAR Euskadi, *El IncenDiario* dokumentala (16'); SOS Arrazakeria, *Pertsona errefuxiatuekin mentoretza*; Alboan, Zaporeak, eta Gurutze Gorria, *Mugetik haratago*.

Bestalde, zenbait elkartetako ordezkariak desgaitasuna duten pertsonen egoera azpimarratu zuten eta haientzako zuzendutako baliabideak partekatu zituzten: Gautena eta Elkartu, *Herri inklusiboak*; ONCE, *Orainaldiko laguntzak, etorkizunerako bermeak*; Mindara, *Egokide* proiektua; Elkartu, koordinakundearen lana.

Hiru jardunaldiotan Jon Martin bertsolaria aritu zen bertsotan.



ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Donostiako Udalak 40.240 euro bideratu zituen giza eskubideen sustapena helburu duten 31 proiektu diruz laguntzera.

Laguntzen helburua da bakea, bizikidetzak, giza eskubideak, aniztasunarekiko errespetua eta memoria historikoa berreskuratzeko lanetan diharduten hiriko eragile sozialek eta elkarteek zuzendutako ekimenak eta proiektuak babestea.



GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO IKASTAROAK

2020ko azarotik 2021eko apirilera

Giza Eskubideei buruzko XXIV. ikastaroek gogoeta eragingo dute gaur-gaurko gaien inguruan, hala nola, klima-aldaketa, pertsonen salerosketa, haurren aurkako krimenak epaitzea, giza eskubideak eta generoa. Ikastaro hauek EHUK antolatu ditu, eta Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak babestu. Besteak beste, honako gai hauei buruzko hausnarketa egingo dute: generoa eta giza eskubideak, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapena, LGBTI eskubideak, lana edo NBERen helburuak.

Parte hartzaileen artean izan dira, esaterako, Franceso Bastagli (nazioarteko hainbat gatazka gunetako —Nikaragua, Mendebaldeko Sahara, Kosovo, Ukraina...— gai humanitarioen Nazio Batuen idazkari orokorraren ordezkaria, 1974-2019), eta Álvaro Gil Robles, Espainiako Estatuko herritarren defendatzaile ohia.

Ikastaroen osagarri, hiru beka ematen dira, ikasleak Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuko urteko irakaskuntza saiora joan daitezen, eta, horrez gainera, hitzaldi guztien urteko argitalpena kaleratuko da.



Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea

Aieteko Jauregia

Aiete Pasealekua, 65, 20009 Donostia

943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus

www.donostia.eus/gizaeskubideak